

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA KARRIKA

ZENBATGARREN SAIOA : 1

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-05		

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Enekoitz Markos, Iñaki Pikabea eta Eneritz Arbelaitz
-------------------	--

Kopurua: 13

16-30 urte: 3	Emakumeak: 5	Euskaraz
30-50 urte: 3	Gizonezkoak: 8	
>50 urte: 7		

AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz

GAIA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Udal ordezkariak aurkeztu dira eta baita bileraren egitura ere.
2	Aurrekontuak 2016	Sarreraren eta gastuen azalpen orokorrak eman dira. Azkenik zorraren eboluzioa aurkeztu da.
3	2015eko lanak	-Artasoko zubia bota eta txukundu da. -Kooperatiba aurrekaldeko errekaren rekaltzea 35000€ekin egingo da, ziurrenik urtea bukatu baino lehen egingo da. -Bainatzeko gunean zakarrontziak jarri dira. -Kadarsotik bidegorrirako bidegorria txukuntzeko podaketa lana egin zen. Rekaltzeak 35000€ko gastua suposatuko du, eta 2015erako 20 000€ zeuden. Jexuxek adierazi du aurrekontu horretatik pasatzen dela, baina egin beharra dagoela. Auzotarrek ez dute eragozpenik.
4	2016ko proposamenak 19:56	Lau urteko ikuspegia eduki behar dugu 20 000€ko muga hori gainditzeko. Karrika kalea gaizki dagoela askotan esan izan da auzo bileretan. Hala ere, arazo handia dago hemen

		<p>saneamenduan eta hoditeria berri behar da kale honetan. Planoa erakutsi da.</p> <p>Horretarako, karrika kalea itxi beharko litzateke, eta beraz, Arraskuko bidea berreskuratu beharko litzateke. Bide hau berreskuratu ondoren karrika kaleko obra egingo litzateke.</p> <p>Aurreko urtetako beste eskaera Irautzara doan bidea ongi jartzea da eta hori ere egitea proposatzen da.</p> <p>Udalaren proposamena 2016rako:</p> <p>Arraskuko irteera egitea</p> <p>Irautzako bidea ongi jartzea</p> <p>Aurrerago:</p> <p>Hoditeria berri eta bidea asfaltatzea</p> <p>Karrika kalea ez litzateke berehala asfaltatuko, baina <i>partxeoa</i> egingo litzateke zuloetan. Bizilagun batek kezka azaldu du zuloak tapatzen direnean 15 egun irauten dutelako. 2011n errepide hori horrela zegoela adierazi zioten udalari eta gaur egun berdin omen dago.</p> <p>Udalak 2019ra bitarte zer egin behar duen marraztu nahi du. Urte batean ezin da dena egin, aurrekonturik ez delako izango.</p> <p>Beste auzotar batek dio auzoan arazo larriagoa badagoela: etxe berriak egin dira eta jende asko dago. Goizetan autobusa etortzean plaza kotxez bete eta trafiko handia. Bi kotxe ez dira pasatzen eta hoditeria aldatu ondoren asfaltatuta ere, arazo hori mantendu egingo litzateke. Ergoien trafikoa bideratu den bezala bideratzea proposatu du beste batek. Udaltzainekin ere hitz egin omen zuten.</p> <p>Batek semaforoa ere planteatu du, San Juanen bezala. Beste bizilagun batzuk ez dute semaforoa egoki ikusten.</p> <p>Errepidea zabaltzerik izango den ezin da ziurtatu.</p> <p>Adierazi nahi dute, hurrengo pausua errepide hau egoki jartzea izan beharko lukela.</p> <p>Xorrola ere bertara iristea eskatu du beste batek. Esan da Xorrolaren kontratuarekin lotuta gaudela eta gerora kontratua bukatzean ekarpen hauek jaso beharko dira. Taxibusarekin ez da auzoko beharra betetzen. Ordutegia murriztu duelako. Karrikatik gainera Elizaldera doa, ez doa beste auzoetara.</p>
--	--	--

		<p>Mugikortasuna landu beharreko gaia da: bidegorririk ere ez dago, errepideak gaizki, Xorrola ez da iristen, Taxibusaren zerbitzua eskasa da.</p> <p>Auzotar batek dio auzolanarekin ere gauza batzuk egitea aukera bat dela. Agian Iraurtzako bidea egin daiteke auzolanean. Auzolanerako talde bat osatu beharko litzateke, antolatu, makineria nola egin.</p> <p>Auzoan inbertsio handiak dira egin behar direnak, eta hori dela eta, azken urteetan ez dela ia ezer egin adierazi du bizilagun batek.</p> <p>Obrak egiten direnean, obraren gainean egotea eskatu du beste batek. Errota inguruan arazoak izan baizituzten azkenekoz obrak izan zirenean.</p>
5	Mantenu lanak	<p>Petrine ondoko zubian erreka zerbait ateratzen dela dio batek, Errotaurreko etxe berrietako saneamenduko delakoan dago. Esan zaio hoditeria errota ondotik doala eta zubiaren alde batetik bestera ez dela pasatzen.</p> <p>Harrobiko bidea ere gaizki dago. Aldundiari errepideen inguruan hitz egiterakoan arazo hori ere badagoela adieraziko da. Seinale asko ere tapatuak omen daude.</p> <p>Harrobi eta Martinmotzene ondoan ere errepidea jan omen du urak eta lurra ere artosituta omen dago.</p> <p>Artaso inguruan Arraskuko kruzeraingo <i>sopladorarekin</i> pasatzea eskatu du batek.</p> <p>Mendi aldera igoz gero, pistetan ura besterik ez dago ur-biderik ez dagoelako. Egoera hau aztertzea eskatu du batek.</p> <p>Penadegitik Epelerako bidean pista itxita dago. Entresaka egiten ari dira.</p> <p>Oialekuko txabonan zikinkeria dago.</p>
6	Balorazioa	<p>Bizilagun batek adierazi du auzotarrek Udalaren mezua jaso dutela, eta auzotarrek adierazi nahi izan dutela orain arteko eskaerak zeintzuk diren eta kontuan hartzea nahi dutela.</p> <p>Bestetik baloratu dute oso ongi ikusten dutela Udala auzora jaitea.</p>

BALORAZIOA	PUNTUAZIOA
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	9
Bileran erabili den metodologia	9,1
Herritarren asistentzia	6,9
Herritarren partehartzea	7
Saioa probetxugarria izan al da?	8,6
Egunaren egokitasuna	8,6
Orduaren egokitasuna	8,6
Lekuaren egokitasuna	10
Denera bataz beste	8,5

Komunikazio bideak	Kop	%
Bandoa/kartelak	2	15
Irratia eta prentsa	5	38
Sare sozialak	6	46
Ahoz-ahoz	0	0
Udal aldizkaria	0	0